

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abenduaren 30a / IV. urtea / 159. zenbakia

'Tasio' Montxo Armendariz zinemagile nafarraren filmeak famatu egin zituen garai hartan desagertzeaz zeuden ikazkinak. Lanaibar eta inguruak omen ziren azken ikazkinen gordelekuak. Urteak iragan dira, eta Lanaibarren herriko festetan bakarrik pizten

## Manuel Alzugarai, Urepeleko 'Tasio'

dira berriro txondorrak. Urepelen, ordea, nafar batek ikatza egiten du oraindik ere, urtero. Manuel Alzugarai —sortzez lesakarra baina Xalbadorren herrian laketua— egurra ikatz bilakatzeko prozesua inor baino hobeki menderatzen du, ikazkina baita, oso-oso.


### Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



### Biharko azken hondarra

Irakurri ez dut irakurri baina, haren gaineko prentsa-komentario ttipi bat, bai ordea. Julio Quesada da liburuaren egilea, eta izen-deituraz aparte ezin dezaket deus gehiagorik esan. Hala ere, eta izenburuak dioen bezala —'Ateismo nekosoa', 'Ateismo difizil'—, tema ezin deliziosoa goa izan daiteke egun berexi hauetarako. (Eguberri on, bide batez). Idazlearen nondik norakoak garbiki mugarrizteko, bi esaldi nabaritu nahi izan ditu kazetariak. Horra hor lehena: 'Jainkoa ez dut maite, giza sailak baizik', eta hona hemen bigarrena: 'Ez nazatela nire seme-alabek belauniko ikus, inongo botereren aurreran, nola zerukoa hala lurrekoa'. (Itzulpena, nere kontu). Hitzez kargatutako bi torpedo hauek badute bai, zer jo eta zer zolatu; esate batera, bakotxaren burua eta aurrekoarena eta, bereziki, Iruñeko kurtsileriaeren erakustoki bihurtu den 'Pamplona Television' delakoa. Ezin atzendu bestetik, zulo ederrak egingo lituzkeetela ere egunotan Takoneran barrena jira-biraka dabilen jendearen kaskoetan, baldin eta —suposizio bat baino ez bada ere—, bi mezu horiek grafiti modura handiki idatzita (gatzelaniaz, jakina) agertuko balira hango harresietan: Belengo Jaiotzaren ondokoarenean, kasu. Eguberri hauetako menuaren haritik oraindik tira eginda, garotzez gain egin du dagoeneko Lapiko Espainiarrak eta, dirudienez, eztanda egitea baizik ez da falta orain. Ez da bakarra izango halabaina. Auzuneko sukaldeetako lapiko franko irakiten ari dira aspaldi, eta ez zaie kezkarik atzematen sukaldariei: bazkaltiarrok lasai segitzen baitugu kaka jaten, kaka esplikatzan: Aurki beteko dira mila egun Sarajevoren lehen zafladatik, Errusia Inperialaren gaitzak kutsatu du Grozni hiria, zertan bereizten ditu jendeak Argeliako FLN-ren triskantzak eta integristen hilketak?... Egia borobil mordoska geratu dira hutsaren mailan: Diruaren Jainko Engominatua presondegian daukate zortzi urtez harrosko erreinatu ondoren, Gobernuaren azpizana egiten aritu diren pintxeak matxinatu dira Sukaldari Nagusiaren kontra, eta Porkonsigüente Jaunak zer platera atontzerik ez dakiela dabil orain bihotzerrea lasaitzearen... Azken desioa: Jainko erorien zipristinek ez diezagutela gure azal inmakulatua gehiago likistutu, biharko egunaren azken hondarrarekin batera, ur uherra atzealdera bota eta ur berriz, botilaren pun-pun adituz bat, datorrena datorrela, kopa altxa eta opa egiterakoan... Nola zerukoa hala lurrekoa izanda ere: Urte berri on!



Manuel Alzugarai, ikatza egiteko tximinia prestatzen.

HUR GOROSTIAGA

## GURE AUKERAK

### ZINEMA

'El reino del oso polar' izeneko pelikula botako dute gaur, abenduak 30, Iruñean, Museoaren areto nagusian, goizeko 11.30etatik aurrera. Hezkuntza Sailak antolatuta, sarrera dohainik izango da.

'Willy askatu' izenburuko pelikula botako dute gaur ostirala, hilak 30, Mutiloa-Beitiko Udalteixe zaharraren lokalean. Arangurengo udalak egun hauetarako antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 5.00etan hasiko da.

'Las aventuras de Ultraman' izeneko filmea botako dute bihar, abenduak 31, Korellako Kultur Etxean, arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Sarrera dohainik

### ANTZERKIA

**Sambhu Teatro** taldeak 'El principito' izeneko antzezlan taularatuko du gaur, abenduak 30, Tafallako Kultur Etxean. Kultur Patronatoak antolatuta, arratsaldeko 6.00etan hasiko da.

**Nafarroako Antzerki Eskolak** muntai berezia antolatu du Gabon egun hauetarako, '¿Tú haces ruido cuando piensas?' izenburukoa. Aste honetako azken errepresentazioa gaur izanen da, eta heldu den astean ere egunero taularatuko dute obra berezi hau, arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Eskolako aretoan nagusian izanen da.

### BESTELAKOAK

**Andrea** emakumeentzako zerbitzuak ikastaro ugari antolatu ditu heldu den urterako, urtarrilaren 9an hasiko direnak. Autoestima, Autodefensa, Yoga, Jendaurrean hitz egiteko teknikak, Ingelera, eta tailer ezberdinak antolatu ditu, goiz, arratsalde eta gaueko ordutegietan. Apuntatu nahi duenak 22 77 14 telefonora deitu edo Navarrerria kalean dagoen Andreako egoitzara joan besterik ez du.

**Pintura Lehiaketa** haurrentzat antolatu du Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) egun hauetarako. Lau eta hamabi urte bitarteko haurrek parte har dezakete, eta marrazkia NAEra eraman edo bidali behar dute. Bi sari daude: 4 eta 7 urte bitartekoentzat disfraz berezia eta 8 eta 12 urte bitartekoentzat liburu sorta. Urtarrilaren 14a baino lehen bidali behar dira marrazkiak eta saridunen izena 'Diario de Noticias' egunkarian aterako da.

### NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

## Fitxaketa izugarriak

Nik dakidala, soilik bi atzerritar aritu dira denon gustuko Osasunarekin: Robinson eta Urban. Gainontzeko guztiak desastre hutsa: erdian, partidua erabat galduta genuela, Pedersen izeneko danimarkar xelebre bat aterazuen Zabalzak. Xelebrea, gorritxoekin zegoenetik bigarren

raiak duela gutxi jo zuen goia, Angelov, Spasic eta Stevanovicekin. Bost atzerritar Osasunan! Barça bezala!!! Ez dakit zer mailatako taldeetan ari di-



txarrak zirela, besterik gabe; zaharregiak edo toki guztietan mindurik zeudela; beste talde batera joatea beste asmorik ez zutela... urte askotan txisteak egiteko baino ez dute balio izan zorioneko fitxaketek.

Gogoan dut Espainiako hiriburuan behin pasatu behar izan nuen lotsa, Osasuna bertako talde handiaren kontra jokatzeko ari zela. Azken ordu

partidua edo zelako. Inork ez zekien xuxen-xuxen zer-nola jokatzeko zuten, are gutxiago zertarako fitxatu zuten. Hango zelai handian atera, eta dena irri eta barre izan zen, hain zen lotsagarria bere jokoa. Uste dut behin ere ez zuela baloia ukitu. Jugoslaviar batek ere zer esan franko eman zuen, ordezkoa baitzen, ezinbestez, baina fitxaketa izugarrien ga-

ren hirurak egun.

«Antolatzaile izugarri trebea» den Andres Martinez heldu da aste honetan, ia mitoa den Urbanen kalterako, antza. Gaztea eta garaia bada, bederen, uruguaiarra. Ikusteko dago, alabaina, Pedersen bat edo Urban bat den. Osasunak ezingo luke eta izar gehiago jasan. Ez behintzat zaletuek, nik dakidala.

### ASTEKO PERTSONAIK



Martin Caro Margolaria

Martin Caro margolari iruindar zenari buruzko liburua aurkeztu du aste honetan Carlos Catalanek, Iruñeko Aurrezki Kutxaren eskutik. Martin Caro 35 urte zituelarik hil zen Madrilan, 1.968 urtean, zinema areto bateko bakardadean eta Iruñean bere lana ulertzen ez zutela. Liburuaren egileak eta Iruñeko Aurrezki Kutxak azaldu zuten, liburu honekin helburu garbia lortu nahi dute, hots, Martin Caro eta bere familiarekin zuten zor morala ordaintzea. Artista honen bizitza tragediaren artean igaro zen, gaztetatik gaitz sendaezina izan baitzuen. Hala ere margotzeari ekin zion eta askoren ustez abangoardiako pinturan Nafarroak izan duen margolaririk onena izan da Martin Caro.



Miguel Sanz Lehendakariordea

Nafarroako Gobernuo lehendakariordeak lehendakari izan nahi du, horra. Ez omen du beste kezkarik, Juan Cruz Alli lehendakariak ez baitu gehiegi estimatu aspaldi honetan. Aste honetan jakin da maiztean izango diren hauteskundeetan lehendakari posturako lehian sartuko dela Miguel Sanz, eta beste zerranda bat aurkeztuko duela. Erreakzioak ez dira gutxi izan, eta Alfredo Jaime Iruñeko alkateak berehala esan zuen bere hautagaia ez dela Alli, beraz, Sanzen alde bozkatuko duela. Jesus Aizpunek ere azaldu du normala iruditzen zaiola bi zerranda izatea lehendakari posturako, eta hitzik esan ez duen bakarria Juan Cruz Alli bera izan da. Lehendakari berria izango ote dugu aurtent?



### ANTZERKIA EUSKARAZ

Iruñeko Udalak antolatuta, haurrentzako euskarazko antzerki zikloa izanen da heldu den astean Gaiarre Antzokian. Aste honetan erdarazko obrak taularatu dituzte, eta gaur 'Snoggle' izeneko eskainiko du 'Teatro de Titeres de San Petersburgo' taldeak, erdarazko azkena, hain zuzen. Euskarazko saioei hasiera emateko 'Printze Txikia' izeneko obra plazaratuko du Sambhu Antzerki taldeak heldu den astelehenean, urtarrilak 2. Kontu klasiko hau kontatzeko modua oso atsegina da, protagonistaren gorabeherek batzutan tentsioa sortarazten badute ere. Asteartean, berriz, Ados Teatroa taldearen txanda izango da, 'Robinson Crusoe' obra ezaguna taularatuko dutelarik. Historia oso ezaguna bada ere, umorezko eskema ugari sartu dituzte, nahasketa handiaren artean. Azken obra asteazkenean izango da, Txotxongillo taldeak 'Herensugea' izeneko lana taularatuko baitu, zikloari amaiera emanez. Antzezlan guztiak eguerdiko 12.00etan hasiko dira, Gaiarre antzokian. Sarrerak 250 eta 100 pezeta bitartekoak dira: aretoan garestiagoak, palkoan merkeagoak.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



### Baztan-Bidasoa

### Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Laura

# «Urtetx, urtetx!»

P.U. / IRUNEA

Urtea akitu eta berriak bere lehen eguna iragartzen duenean, mahatsak, kantuak eta parranda ederrak egiten dira gaur egun Euskal Herri osoan. Ezkilaren hotsekin zorionak eta musuak ematen dira, azken txanpain kopa hartu ondoren karriketara ateratzen da jendea, eta tabernak edo lagunen etxeak izaten dira topaleku. Ordu txikiak eta handiak xahutzen dira horrela etorri berria denaren omenez. Ez da alde handirik, beraz, Espainia edo Frantziako beste hainbat tokitan egiten den ospakizunarekin.

Hala ere, badira oraindik urte berriari agurra emateko antzina-ko erara ospatzen duten alderdiak. Baztan-Bidasoan eta Sakanako hainbat herritan haurrak edo herriko gazteak kalera ateratzen dira Urteberri bezperan edo egunan, janari edo diru eske, eta uraren gainean zenbait bertso kantatzera. Gai hau aztertu eta Baztandik Berara bitarteko herri guztietako bertsoak bildu ditu Gabriel Inbuluzketa kazetari baztandarrak 'Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra' sailean argitaratu duen artikuluan, 63. zenbakian.

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako herri gehienetan, esan bezala, urte berria kantuz eta janari eske agurtzeko ohiturak iraun du gaur egun arte, nola edo hala. Kalez kale ateratzen dira haurrak egun hauetan, eta tokian tokiko koplak eta usadioen artean ñabardurak badira ere, denek dituzte ezaugarri amankomunak. Izan ere, herri orotan etxez etxe egiten da puska eskea, eta hori iragartzeko hainbat bertso abesten dira, etxeen ondasunei eta urari buruzkoak.

**URARI ERREFERENTZIA ILUNA**

Hain zuzen ere, urari egiten zaion erreferentziaren esanahi zuzena ez dago batere garbi. Sakanako Urdiain eta Arruazu herriek gordezten dute oraindik gaur egun uraren inguruko erritua, baina Baztan-Bidasoa aldean soilik bertsoetan egiten den aipuan gorde da aztarna. 'Uraren gañan' esaten da gehienetan, eta Oieregik eta Gaztelukoek 'lehena eta azkena' eransten diote horri. Inbuluzketak dio urari buruzko aipamenak azaltzeko Bazko egunetik datozen zenbait hondar erlijiosori erreparatu behar zaiola. Ura eta sua bedeinkatzean, 'alfa eta omega' aipatzen ditu idazki erlijiosoak jaungoikoaz ari denean, hau da 'lehena eta azkena'.

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietan errepikatzen



Puska eske ariko dira egunotan alderdian.

den hitza, bestalde, 'urtetx' da. Ez da oso garbi bere etorria, baina Baztanen Inbuluzketak berak jaso du azalpen bat: 'urteko kosetxak' espresioaren kontrakzioa, hori baita —intxaurrak, urrak, sagarrak—, hain zuzen ere, gehien biltzen dena. Jose Maria Satrustegiren ustetan, ordez, 'urtats' da urteberriaren hasiera, eta 'urtexa' egun hortako oparia.

Eskaera batzera egiten dute.

haur denek, baina desberdintasunak daude herrien artean. 'Urtetx, urtetx' (edo 'urtatx, urtatx') esaten ohi dute Amaiur, Erratzu, Elbete, Elizondo, Gartzain, Irurita, Oronoz, Ziga, Aniz, Urdazubi eta Oieregin. 'Urtetxak bihar tugu' diote Azpilkueta, Lekaroz, Arraioz, Ziga, Oieregi eta Legasan, eta 'urtetxak nahi dugu' Arizkun, Almandoz, Oieregi eta Gaztelun. 'Bota urtetxak' agintzen dute Arizkun, Oieregi, Le-

gasa, Etxalar, Urrotz, Donamaria, Gaztelu eta Narbarteko haurrek, eta Doneztebe, Legasa eta Elgorriagan 'bota intxaurrak' esaten dute.

**Arizkuingoa** da Baztango bertsiorik luzeena, nahiz eta duela zenbait urte galdua izan: 'Urteberri berri, zer dakarrazu berri?! Uraren gañan, bakia ta osasuna. Urtetx, urtetx, urtetxak nahi tugu. Urte zar, nik atorra zar, maukarik ez! axolarik ere ez. Aingeruak gara, zerutik heldu gara. Boltsa ba dugu dirurikan ez dugu. Urtetx, urtetx, urtetxak nahi tugu. Pin pin txoriak, txori maingularia. Txorikumeak ezpeletan. Iturringo zelaietan! zazpi zortzi zezenetan! hilko tugule. Txori txori landa, txoria kompainia. Etxe huntetako! etxeoandria! leihoan baleo, leihoan baleo... Ateak eta leihoak ereki eta bota urtetxak!'.

**Urrotzen** galdu dira bertsoak, baina oraindik gogoratzen dira: 'Eguberri, berri, nik atorra berri; Eguberri zar, nik atorra zar. Ehun akillondo, akil akillondo, zirribillo zarrabillo, bota urtatxak!'.

**Beintza-Labaien**en urtarriaren 5ean, Errege bezperan abesten dira koplak: 'Urteberri, berri, zarra ioan da! ta berri etorri. Nik atorra zarra, nik axolik gabe'. **Etxalarren**: 'Ela, ela! Nora da, nor da?! Ni naiz Urteberri. Zer dakartzu berri?! Uraren gaña, bakea ta osasuna. Etxekoandrea ona, nagusia hobea. Ireki atea, bota, bota urtatxak! Txantxilikitona, goiz afari on! kupelaz barranean! mama goxo! haurrak jostatzeko. Ai zer afaritxo!! Tira la artilleria! como la daria! grande borracho'.

Laura Engels, Zelaiko Etxeko etxeoandrea, zertxobait zorabiatu iratzarri zen egun hartan. Begirada eskuin aldera luzatu zuelarik, goizero bezala begibistan Michael Landonen irudi maitagarria topatzea espero zuen. Begietan ohi baino makarra gehiago zeuzkanez, ezin izan zuen asko ikusi, baina, halere, kima luzedun zerutiarra bere alboan ez zegoela antzeman zuen. Zorabiatu segitzen zuen, eta ohi baino nekatuago sentitzen zen. Gauzak horrela, «Ene kuttuna haurrentzako gosaria prestatzen ariko da» haren golkorako pentsatu, eta berriro ere Morfeoren besoartean lo geratzea erabaki zuen.


Ezin izan zuen, baina, bere nahia gauzatu, sekulako hotzikarak sentitu baitzuten. Harritzekoa zen; izan ere, Michael bere eskuetan eraikitako Zelaiko Etxea bero beroa izaten ohi zen. Gainera, Michaelen amak oparitu zien eskuz egindako edredoia ere ez zen batere makala. Laura, halere, ez zen larritu. «Ene kuttunak lehia irekiko zuen, gela zertxobait aireztatzearen» pentsatu, eta zorabiatu segitzen bazuen ere, ohetik altxatuko zela ebatzi zuen.

Zorabioa eta makarrak gaine-



tik kendu asmoz, eskuak aurpegi-rama eraman zituen. Bere bizitzako ezustekorik handiena hartu zuen kokotxa eta masailak hilez beterik zituela somatu zuelarik. Bizarra zuen! Filosofo existentsialista bailitzan, Laurak «Nor naiz? Non nago? Nondik nator? Nora noa?» galdetu zion bere buruari. Bere buruak erantzun bortitza eman zion. «Zozo puska hori! Zu ez zara Laura Engels, zu Diego zara, ikasle txar samarra. Ez zaude Zelaiko Etxean. Eguerdiko ordu bata da, eta autobus geltoki batean zaude, Antso Azkarra etorbidean. Bertan lo zerraldo eman dituzu azken hiru orduak. Alde Zaharretik zator, eta Montañesa hartu nahi duzu Barañainera, zure etxera joateko. Amaitzeko eskaera bat, arren, otoi eta faborez, kentzazu lehen bailehen Laura Engelsen moztarria, eta heldu den urteko Gabon zaharrean etxean gera zaitez».





Nafarroako Taldekako Txapelketako 9. ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 10ean jokatua.

Florentino Moro, 1.990 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna)-Iñigo Montoya, 2.105 ELOkoa (Iruñeko Oberena 'A').

1.e4,c6; 2.Zc3,d5; 3.d4,e4; 4.Ze4,Zd7; 5.Ac4,gZ-f6; 6.Zg5,e6; 7.Ze2,Zb6; 8.Ab3,h6; 9.Zf3,c5; 10.c3,Dc7; 11.0-0,Ad6; 12.c4,0-0; 13.Ae3,bZ-d7; 14.Gc1,b6; 15.Zc3,a6; 16.h3,Ab7; 17.Ac2,fG-d8; 18.De2,aG-c8; 19.b3,Db8; 20.fG-d1,Da8; 21.Ze1,d4; 22.Ad4,Ab4; 23.Ab1,Ge8; 24.Dc2. Ikus koadroa. Txuriek ez dituzte piezak behar bezala kokatu atzean. Korapilo horretan nahastu dira, eta partida nolabait eman. 24...Aa3; 25.f3,Ac1; 26.Gc1, e5; 27.Af2,e4; 28.Gd1. Txuriek 'h7-ko' laukia erasotzeko itxaropena daukate, zerbait itsumustuan eragin nahian. 28...Zc5; 29.b4,Zd3; 30.Zd3,d3; 31.Gd3. Dama jatea ez zen peoiaren salbaidia (eG-d8).

31...Gc4; 32.Ad4,Zd5; 33.Gd1,g6; 34.Dd2,Zc3; 35.Ac3,Ge6. Jokaldi zuhurra, 'Ag6' jokaldia galarazteko. 36.Dd8 xa, Eh7. Ez da damak aldatzeko momentua, gazteluari sarrera ez zabaltzeko. 37.Dd3,Dc8; 38.Ad2,Dc7; 39.a3,cG-c6; 40.Aa2,cG-d6. Taulaz ederki jabetu dira beltzak. 41.Df1,Ge7; 42.Gc1,Dd8; 43.Af4,Gd3; 44.Eh2,eG-d7; 45.Gc2,Df6; 46.Ab8,Gd2; 47.Dc1,Dg5; 48.Ag3,Af3. Beltzek ongi erabili zituzten beren piezak, eta txurien etsipena sortarazi ere.

## Irakaslea eta ikaslea

**Galdere:** Fisika irakaslea naiz. Klaseko hamabost urteko mutil batekin maitemindu naiz. Egia esan, orain arte, zoriontsua nintzelakoan nongoen nire matrimonioan. Zer egin behar dut?

**Erantzuna:** Tentamenduetatik ihes egiteko modurik onena tentamenduetan erortzea omen da. Hala ere Amodioak laket dituz iruzurrak, eta askotan egin behar dena egin eta sendatu beharrean, are eta larriago dabil gaiztoa. Egia esan, tentatzailea ere ez datza behin ere lo, eta egunero ikusi beharra baduzu zure egoera larria da. Hasteko errekomentatuko nizuke Jon Miranderen 'Haur Besoetakoa' irakurtzeko, edota Vladimir Nabokoben 'Arraza zuriko alargun baten memoriak'. Hor kontatzen diren istorioak zurearekin aldera daitzkeela pentsatzen baldin baduzu, zure egoera larri askoa da, egiatan.


Paxaketan ibiltzeko esango nizuke, eta zure amodioaz lagunekin mintzatzeko, ondoko pertsonekin haren biloz, ezpainez, begiez, hau da lau haizetara afera plazaratzeko. Bestela, haren abotsaren soinua, haren aurpegia, haren karpeta irudiak, *The news Kids in the olds blocks are working now*, esate baterako, hain sakonki barneratutako zaizkizu, non egiten duzun orok haren kutsua izanen baitu. Eta ez doa erran gabe hori sendagaitza dela, oraingoz.

**Galdere:** Adelaida ederra bezain ukiezina zen, eta makina bat aldiz bere faboreak lortzen saiatuak ginen. Dena alferrik. Horrexegatik betiko tristetu gintuen jakin izanak Donostiako kaian, eskife batean, *pies negros* delako batekin larrutan aritu zela, itsasoaren altzoan. Nola da posible, Elias Beorburu de Berriobeiti, halako



**Amodioak oro gai dira, duinak. Bestela ez dira amodioak. Amodioa ez baldin bada, orduan hasten dira sailkapenak.**

## Burgi



Aitziber Aznarez  
(BARAÑAIN)

**E**rronkari haranak zazpi herri ditu, eta horietako bat Burgi da. Burgira joateko bi bide daude. Bat Nabaskozetik eta bestea Esatik. Nabaskozetik joatean dena mendia da. Oso berdeak dira eta animalia asko ikus daitezke, txikiak, handiak... tamaina guzietakoak. Askotan ikusten direnak hauek dira: erbiak, untxiak, orkatzak eta basurdeak (hauek gutxiagotan). Las Coronas portua igo behar da. Bihurgune asko ditu eta erraz zorabia zaitezke.

Esako errepidetik joatean, Esako urtegia ikus daiteke. Lehen, urtegiaren azpian



dauden herriak ezin ziren ikusi ur asko zegoelako, baina orain bai. Herriak amilduta daude. Errepide honetatik ez dira hainbeste mendi ikusten. Mendi hauek besteak baino lehorrago daude: eguzkiaren beroarengatik da. Errepide honetatik, Burgira iristen garenean, ikusten dugun lehenengoa zubia eta okindegia da. Zubia erromanikoa da, oso handia eta bere azpitik Eska ibaia pasatzen da. Ura oso gardena da, baina batzuetan oso zikina dago Erronkarin dagoen lantegiaren erruarengatik. Ibaiek presa txiki bat dauka, eta bertatik almadiak pasatzen dira.

Okindegia etxe zahar batetan kokatuta

dago. Esaten dute Burgin egiten duten ogia Erronkari haraneko onena dela. Laberik zaharrena hor dago eta bertan ogia egiten dute.

Errota bat dago, okinarena. Orain ez da erabiltzen eta okinak egurra gordetzen du hor. Oso zaharra dago, erortzeko zorian. Gero eskoletara iristen gara. Dena puskatuta daukate. Bi solairu ditu, eta solairu bakoitza bi zatitan banatzen da. Behetako klaseak dira, eta zati bat neskontzat zen eta bestea mutilentzat. Goikoan, maisuak bizi ziren. Eskola ondoan, zabuak daude. Batzuk belarrez estalita daude ez dituztelako zaintzen. Orain herriko umeak Erronkarira

ikastera joaten dira eta eskola horiek udalarenak dira.

Orain kanpin bat egiten ari dira eta horra pasatzeko zubi handi bat egin dute. Agian oso handia herri batentzako.

Goiko errepidetik borda batzuk ikusten dira, erortzearen ondoren. Ondoa mendi txiki bat dago, Kukula du izena. Hortik herri guztia ikus daiteke. Eliza erromanikoa da eta ondoan enparantza bat dauka, lau intxaurrondorekin. Behean beste enparantza dago, intxaurrondo batekin.

Burgik bi ermita ditu: Gazteluko ermita, herrian bertan, eta Bideko Ama Birjinarena, Eska ibaiaren ondoan.

neska ederra eta etxe onekoa, Wolf GTIdunak garen hauek baztertu eta halako jipi batekin ibiltzea? Madrilgo Burtsako korrikalari bat. TeleMadrident egiten duzun programa oso txukuna da. Besterik gabe, agur.

**Erantzuna:** Adelaida hori, Burtsako korrikalaria, kasu tipiko-tipikoa da. Ez du txirotasuna gogoko, hori seguru. Baina zer esan nahi du txiro hitzak? Ez al du duintasunik txiroak, pitin bat sikira? Ikusi beharko zenituzke nire kontsultako horma zaharrak. Horma zahar hauek badakite nire aferek ez dutela betiko iraungo, ezta nire baitan ere. Gure pozak eta kuitak, mundu honetan egiten dugun guztia fite doa itsasora. Horma zahar hauei gizon-emakumeen lausenguak bost axola zaizkie. Haien bizia oso luzea da, gurea, berriz, oso motza. Eskife zahar horretan Adelaidarekin zegoen Piesnegros hori baliteke etxe

onoko pertsona izatea, eta Adelaidaren faboreak lortzeko, horretaz moztortuta ibiltzea. Baliteke Piesnegros hori zinezko Piesnegros bat izatea. Amodioak oro gai dira, duinak. Bestela ez dira amodioak. Amodioa ez baldin bada, orduan hasten dira sailkapenak. Zenbait azpiamodio moeta onartuak dira, beste asko, berriz, inolaz ere ez.

**Galdere:** Luzio Galartza nauzu, eta jakin nahi nuke ea dagoe-nentz bazkari afrodisiakorik. Besterik gabe. Agur t'erdi.

**Erantzuna:** Luzio maitea. Gai honetan, beste askotan bezalaxe, iritzi guztiak ez datoz bat. Halare, nire aburu xumea jakin nahi baduzu, nik esango nuke gosea dela bazkari afrodisiakorik onena, maisuaren hitzetan esanda, «pobreak, gose eta egarri zirenak jan-edanean ezin eroriz, lizunkeriaren bekatutan aiseago erortzen derauzkute».

A. BARANDIARAN / IRUNEA

1992an sortu zen Nafarroako Parapsikologoen Elkarteko zuzendaria dugu Lize Moreno, eta urteak daramatza astroak eta ortzia aztertzen eta etorkizuna igertzen. Ez du, baina, gustuko hitza azken hau, berak «zientzia-lana» egiten baitu. Hala ere, etorkizuna alda daitekeela dio. «Astrologiak jarrera eta jokabide nagusiak aurreratzen ditu, baina lan egiteko tresna besterik ez da. Ez, inondik inora, sententzia bat. Tresna honen bidez etorkizuna antzeman dezakegu eta horren arabera jokatu, baina aldatu, alda daiteke. Are gehiago, gauza txarrak aldatu egin behar dira». Iaz egin genuen gisan, aurten ere hastear den urteak ekarriko digunaz galdetu diogu Morenori. Euskal Herriaz ezezik, mundu osoko jardueraz aritu da, astroak mundu osoan ikus baitaitezke.

Ezaugarri bat aipatzekotan, duda izpirik gabe azpimarratu du parapsikologoak: ekonomikoki oparoa izango da 1995a. Nafarroari dagokionez, baina, enpresaren batek itx litzake atea otsailean, baina urte ona izango da orokorrean. «Eguzkiko hila-beteak» dio Morenok, «oso onak izango dira maila guztietan, baina uda aurretik mugimendu politikoak izango dira. Hala ere, ez da gobernu aldaketarik izango». Kirolari dagokionez, Indurainek ezezik beste kirolariren batek ere gauza handiak lortuko dituela dio parapsikologoak, baina atarrabiarrak bereziki zaindu beharko du osasuna. «Belaunetan eta urdailean arazoak izango ditu urtean zehar».

Hego Euskal Herrian politikoki urte mugitua izango da, eta EAEn osatu den koalizioko gobernuak uztail aldera une bero-beroak biziko dituela dio. «Hala ere, lan munduan ardua handiak bereganatzeko prestatu den koalizioa da, eta, nahiz eta diferentzia handiak eduki, politikarion ardurak konponduko ditu tentsio horiek». Tentsioak izango dira, alabaina, ETArekin, eta hiru garai —otsailaren amaiera eta maiatzaren hasiera bitartekoa, ekainaren lehen hamabostaldia eta urriaren lehen hamabostaldia— bero-beroak izango direla dio Desoion laketurako parapsikologoak.

Espanian ekonomiak aginduko du, urte ekonomikoki oparoa eta indarrez betea izango omen da eta. «Jupiter—denak ematen diguna— Espainiako sinboloa den Sagitarioarekin elkartuko da, eta, beraz, berpizkunde oso garrantzitsua izango da aurten. Espainiak, gainera, kanpora egingo du, eta horrek ekarriko ditu negoziak, dirua, etekinak eta pozak. European disdira egingo du». Enpresa berriak kokatuko dira, eta inbertsio handiak egingo direla ziur dago igerlea, eta Euskal Herrian aspaldian arrakasta aurkitu zuen kooperatibismoak bide berriak zabalduko dituela. Sindikalimo munduak, baina, mobilizazioak iragarriko ditu, bereziki otsail eta ekain aldera.

**E**tzi hasiko den 1995. urtea ekonomiaren aldetik bikaina izango da, eta suspertze ekonomikoaren une gorena markatuko du. Politikaren ikuspegitik, gora-beherak izango dira, baina ez da gobernu aldaketarik izango Nafarroan, eta EAEko hiruko gobernuak eutsi egingo dio erronkari. Mundu zabalean Errusiak eta Kubak aldaketak izango dituzte, batzuk onerako eta besteak txarrerako, baina mehatxu handi bat antzeman daiteke etorkizunean: fundamentalismoa. Horrela erantzun digu Lize Moreno Desoioko parapsikologoak, heldu den urteak zer ekarriko digun galdetu diogunean.

## 1995a: urrezko urtea



**P**olitikaren ikuspegitik urte beroa izango da, baina ustelkeriak zeresan franko emango baidu ere, ez da aldaketa politikorik izango.

Politikoki urte mugitua izango da, eta ustelkeriak zer hitz egin franko emango du oraindik ere, baina horrek ez du aldaketa politikorik ekarriko, Morenoren azterketaren arabera. «Justiziak zuzen jokatu du kasu guztietan, eta iruzur gehiago argituko

dira. Urtarrila eta otsaila hilabete beroak izango dira oso. Estaturuak eta goi agintariek ez dute arazorik izango justiziar laguntza emateko, eta horrek ekarriko du garbiketa handia, baina, hala ere, ez da aldaketa politikorik izango. Sozialistek une txarrak jasan behar izango dituzte, frogatuko delako politikoko zenbaitek probetxua atera dutela urte hauetan politikatik, eta garai txarrena udan eta urrian izango da. Hala ere, sozialisten eta eskuindarren arteko lehia oso orekatua da, biak Piscis izanik, Saturno beraiekin dagoelako, eta ez bata ez bestea ez dira nagusituko. Izquierda Unidaren urtea izango da hau, urte oparoa izan ere.

**B**aliteke Algerian eta Libian dagoen indarrak eta SESB ohiko errepublika musulmanetako egoerak fundamentalismoaren arriskua areagotzea.

Imajinazioa beraiena izango da». Mundu zabalean, aurten bezala, bi herrialdek izango dute protagonismo handia: Kuba eta Errusia. Kuban, Lize Morenoren irudiko, aldaketa handiak izango dira aurten, Fidel Castrok eta beste agintariek liberalizazio

garrantzitsua bultzatuko dutelako. «Urte honetan herria izango da agintari kubatarren lehendabiziko helburua, eta gerta liteke kanpoko enpresaren bati atea zabaltzea». Errusia jasaten ari dena, ordea, huskeria omen da gainean datorkionaren aldean. «1996ko udaberrian perestroika berri bati ekingo dio herrialdeak, eta mugimenduak eta gatazkak ez dira baretuko 2002. urtera arte». Bruselan ere zenbait istilu izango dira hainbat herriren artean zorioneko merkatu bateratua dela eta, baina bide onetik abiatuko dira konponbideak.

Hodei beltz handia antzematen du, hala ere, igerleak zeruan, dena goibel dezakeen horietakoa: fundamentalismoa. «Pluton Sagitarioaren barruan sartuko da luze gabe, eta erlijioa eta doktrinen intolerantziak iraganeko mamu asko berpiztuko ditu. 1997tik aurrera musulmanen artean fundamentalistak oso urduri jarriko dira, eta horrek esan nahi du kontu handiz ibili beharra dagoela. Mila urtetan behin izaten den uztarketa bat —Jupiter-Saturno— izango da orduan eta aldaketa sozial handiak eragingo ditu». Gogoratzen duenez, Algerian eta Libian indarra hartzen ari den fundamentalismoak eta SESB ohiko errepublika musulmanen egoerak —«orain arma atomikoak dituzte»—, dena areagotu egin lezake.

Ez da kulturalki joria izango 1995a, ekonomiak, azaldu bezala, erabateko nagusitasuna izango baitu etzi hasiko den urtean, baina heldu diren urtetarako zenbait gako azpimarratu dizkigu Morenok. Garrantzitsuena, gazteengandik sortuko den jarrera berria. «Aipatu dugun intolerantzia hemen ere sumatuko dugu, eta horrek eta gatazka ideologikoki sakonak eragingo dute gazteen jarreraren aldaketa, hain zuzen ere aldaketa sozialak bultzatzeko». Morenoren usteetan, horrek ekarriko du gaur egungo gobernu motaren aldaketa bera. «Denek dakite betiko politikariek ez dutela zer eginik, eta txanpona trukatu behar dela, ez aldea. Beraz, gobernatzeko era aldatu behar da, usteldu gabeko ideien gainean finkatzeko. Ideia hauen jabe dira gorderik dagoen jendea —unibertsiarioak, zientzi-gizonak, filosofoak—, baina luze gabe gobernatzeko ardua hartu beharko dute, bestela gureak egin du».

## «Zaila da»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑA

Jesus Barcosen oraindik ez ditu kazetaritza ikasketak amaitu —bosgarren mailan dago—, baina dagoeneko aski ongi daki aldizkari bat aurrera ateraztea eskatzen duen lana. Bi urte daramatza lan horretan jo ta fuego, eta jada bere ondorioak atera ditu. «Idaztea oso erraza da. Gainontzeko guztia da zailena».

**EGUNKARIA.**— Zein nolako xedeekin jaitzen zen 'Aldizkaria'?

**JESUS BARCOS.**— Duela bi urte estreinako alea karrikaratu genuelarik, gure helburu nagusia euskal kultura eta Nafarroaren historia euskaltzaleengana ezezik, arrazoi ezberdinengatik mundu horretatik urrundurik egon den jendearengana hurbiltzea zen. Horretarako aldizkari informatiboa eta kalitatekoa egin nahi genuen, eta halaber, aldizkari atsegina.

**EGUNKARIA.**— Bi urteon buruan, esan al daiteke helburuak gauzatu dituzuela?

**BARCOS.**— Nire uste apalean bai. Arlo ekonomikoari dagokionez, baina, ezin da horren ongi gabiltzala esan. Hasieratik bagenekien dirurik ez genuela irabaziko, baina azken bolada honetan galerak ere izan ditugu. Hori dela eta, he-

mendik aurrera seguru asko paperaren kalitatea jaitsi beharko dugu, eta antzeko beste neurriren bat hartu beharko dugu. Egia esateko, arazo franko izaten ditugu publizitatea lortzeko tenorean, eta aldizkaria musu truk banatzen dugunez, publizitatea da gure diru iturri kasik bakarra. Zaila da aldizkaria aurrera ateratzea.

Zenbait atetan jotzen duzunean besterik gabe iragarkirik ez dutela jartzen esaten dizute. Gero, hori esan dizunaren iragarkia beste aldizkari batean ikusten duzu. Hori gertatzen zaizularik, Nafarroan sostengoa lortzea oso zaila dela ikusten duzu. Batetik, bezero horrek beste argitalpena mezua igortzen trebeagoa dela uste lezake, baina bestetik argi dago horren guztiaren gibeletik badagoela kultura politizatzen duen planteamendu bat, hain zuzen ere euskal adierazpen modu guztien kontrakoa dena. Gure argitalpenaren izenburua ikusi bezain pronto izutu egiten dira.

**EGUNKARIA.**— Arazo ekonomiko ho-


rietan 'Aldizkarian' lanean ari zaretenon kopuru murriztak ere berebiziko garrantzia izan du.

**BARCOS.**— Bai. Ideia nirea izan zen, eta hasieratik Maria Angeles Carbonellek, nire amak, administrazio eta publizitate lanak egin ditu. Gurekin batera Jesus Mari Etxeberria zuzendariordea aritu da, baina gutaz gain inor gutxi inplikatu da. Idaztea oso erraza da, eta ez dugu, idazteko prest dagoen jendea topatzeko orduan, inolako arazorik izan. Gero, aldizkari batek eskatzen dituen lanak (publizitatea, administrazioa...etab) egiteko tenorean, inor ez da inplikatu. Penagarria da; izan ere, lau lagun gurekin batean lanean hasiko balira, arazo gehienak amaituko lirakeke.

**EGUNKARIA.**— Euskalerrira Irratiarekin elkarlaguntza akordioa adostu berri duzue. Zertan datza akordioa?

**BARCOS.**— Akordioan azpimarragarria da hemendik aurrera lau hilabetetan behin karrikaritzen ditugun 4.000 aleetatik 800 Eus-

«Gure argitalpenaren izenburua ikusi bezain pronto, bezero batzuk izutu egiten dira».



Jesus Barcos.

JOXE LACALLE

## Jesus Barcos

'ALDIZKARIA' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA



SOSLAIA

## Zuzendari eta motorea

Jesus Barcos, 21 urteko kazetaritza ikasle iruindarra, 'Aldizkaria' argitalpeneko aitzindaria, zuzendaria eta motorea da. Erdalduna bada ere, duela bi urte euskararen normalizazioan laguntzearen, euskal mundua erdaldun ez euskaltzaleei hurbil ziezaikeen argitalpena sortzea bururatu zitzaion. Bi urteon buruan, 'Aldizkaria-ren' zazpi ale karrikaratu ditu, eta hortxe segitzen du, jo ta fuego, ikasketek libre uzten dizkion orduetan bere argitalpena aurrera atera nahian.

## NOSKI JATOR

© Zaldí ER02

IRUÑA. THE PRISON. INSHUMISHOS LOOKING CRHISMA-JAIK. NIGHT OF PEACE F NIGHT FOR LOVE J

